



## **Famili medikuentzako eta pediatrentzako kontsulten desburokratizazioaren proposamenen ezarpena.**

Adiskide agurgarri hori:

Jadanik jakingo duzunez, azken urtean zehar beste Autonomia-erkidegoetan Lehen Mailako Arretako kontsultetako desburokratizazioaren bidean aurrepasa nabariak eman dira. 2008ko urtarrilean SVMFIC (Sociedad Valenciana de MfyC) hasi zen, bere gestio-taldean landu zuen agiri batean oinarritua, 2008ko irailean Lehen Mailako Arretako Elkarte zientifiko ezberdinak aho batez onartu ondoren martxan jarri da Madrilgo Erkidegoan, autonomi-erkidego bietan arrakasta izanez. Bai CAMFIC erakundeak (Sociedad Catalana de MfyC), baita SEXFYC erakundeak (Sociedad Extremeña de MfyC) udazken hontan martxan jarriko dituzte aipatutako neurriak.

Azkenengo hilabeteetan eta aipatu ditugun agirietan oinarriturik lanean hasi ginen Osatzen erakundearen zuzendaritza-batzordeko kideok, gure helburua desburokratizazioa bultzatzea izanik Lehen Mailako Kontsultetean. Urrian, azkenengo agiria Osakidetzari aurkeztu diogu jadanik ezarpena adosteko asmoz. Datorren hilabeteetan proposatuko dizkiogun neurriak martxan jar daitezzen behar diren aldaketak aginduko dituztelakoan gaude. Osakidetzaren ixiltasuna dela eta, azaroaren 26an bildu ginen AVpap, EFEKEZE, Osalde, UMAP, Bizkaia eta Gipuzkoako Mediku Elkargo Ofiziala eta OSATZEN. Bilera horretan, denon artean, neurri hauek 2009ko urtarrilean 31an martxan jartzea erabaki genuen.

Halaber hasiera data arte, pazientei egin dugun agiriaren bidez ([www.osatzen.com](http://www.osatzen.com) eta <http://www.avpap.org>) edo beste baiiabide batzuen bitartez aipatutako neurrien berri ematera animatzen zaituztegu. Oso garrantzitsua da pazienteekin batera aritzea daukagun helburua lortzeko. Gure helburua kontsultetan egunero egiten dugun lanaren kalitatea hobetzea da, eta gure proposamena urtarilaren 31tik aurrera agirian agertzen diren neurriak martxan jartzea da.

Desburokratizazioaren agirian bildutako atal guztiak indarrean dauden arau eta legeetan onartuak daudela uste dugu.

Hona hemen egiteari utziko diogun iharduerak:

- Errezetak:
  - Besteek eginiko (Arreta Espezializatuak) errezetak hurrengo azterketararte.
  - Mediku Espezializatuak egindako tratamenduen jarraipenak Lehen Mailako Arretan desegokiak deritzogunak.



- Era berean edozein preskripzio delegatu zeinek ez duen espezialisten txosten osotua alboan (pazientearen datuak, fakultatiboarenak, diagnostikoa eta printzipio aktiboaren izena).
- Inspektzioaren oniritzirako beste espezialista baten txostena behar dutenak.
- Eremu pribatukoak.
  
- Egiaztagiriak:
  - Asistentzia-egiaztagiriak: Hauek PALen egitea (Pazientearen arreta lekua) proposatuko dugu.
  - *A posterioriko* gaixotasunen egiaztagiriak
  
- Beste fakultatiboaren proba osagarriaren eskaera kunplimentatzea.
- Espezializatuarako jarrikortasun kontsulten hitzorduaren dokumento-eskaera.
- Espezialista ezberdin baten deribazioa Famili medikunera, honek, berriz, beste hirugarren bateri zuzendu diezaion.
- Famili medikuak proposatu ez dituen garraio sanitarioaren eskaerak.
- Derrigorrezko adierazpen gaixotasunen asteko-orria.
- Txostenak:
  - Etxeko laguntzarakoak, zaharren egoitzarako sarbideak, balnearioak, gimnasia-erakundeak, ezgaituentzakoak, oposaketak, ... baita orri espezifikoak behar duen edozein txosten/egiaztagiriak ere.
  - Osasibideak eskaintzen duen osasun-txostena baino ezdugu aurkeztu behar.
  - Baimendu eta hitzartua dagoen beste zerbitzu batean jaso izateko orria.
  - Helduentzan derrigorrezko ez den irakaskuntzan matrikulatzeko eskola osasun-azterketak.

Jakin badikigu eginkizun hauek ez dagozkigu guri, arauak badaudela, eta gureak balira bezala ibili garela egiten egiten zehar, gure edo besteen nagikeriagatik eta errazagoa delako pazienteak dagokionera bidaltzea baino. Ez dagozkigun lan honek egiten gure denboraren %30 igarotzen dugu kasu askotan; berezkoa zaigun lana oztokatzen hau guztia. Pazientearen buruhausteak ahaztu gabe, kasu askotan ezertarako balio es direnak. Paziente edo jefaturarenganako zailtasunak, zalantzak edo kexak agertzen bazaizkizu, jakinarazi diezazkiguzu, arren, konpondu ahal izateko.

Bilbon, 2008ko abenduaren 9an